

KOMUNIKAZIO ETA HEZKUNTZA KLIMATIKOA: EMOZIOEN ETA EKINTZAREN BIDEZ AHALDUNTZEA

2024ko azaroaren 28a
BBK Urdaibai Zentroa (Busturia)

SARRERA

Klima-aldaketa da egungo erronka larrienetako bat da, eta, zenbat eta nabarmenagoak izan berotze globalaren ondorioak, orduan eta ezinbestekoagoa da haiei modu kolektiboan erantzutea. Alabaina, komunikazio eraginkorrik eta klimaren arloko hezkuntza egokirik ez izateak mugatu egiten du gizarteak krisiari modu proportzionalen erantzuteko duen gaitasuna. Euskadin, munduko beste leku batzuetan bezala, klima-aldaketari loturiko hezkuntzan eta komunikazioan egiten diren ahaleginek erronka esanguratsua dituzte aurrean: batetik, ezezagutza orokorra dago, eta, bestetik, ekintza itotzen duen ekoantsietatea. Erronka horien aurrean, funtsezkoa da klimari loturiko hezkuntzak eta komunikazioak beste norabide bat hartzea, eta ikuspegi inklusibo, emozional eta praktikoa batzuetarantz eboluzionatzea, pertsonak ahaldundu ditzaten, ito beharrean.

Jardunaldia azaroaren 28an egingo da, **Hezkuntza Klimatikoaren Mundu Egunean**, eta hausnarketarako, ikaskuntzarako eta ekintzarako gunea izan nahi du. Aurrean ditugun erronkei helduko diegu; besteak beste, nola komunikatu eraginkortasunez klima-aldaketari loturiko informazioa, zer garrantzi duten emozioek trantsizio ekosozialean eta nola ahaldundu litezkeen herritarrak ekiteko gai izan daitezen.

Ekitaldiak hainbat gako eta tresna praktikoa eskainiko ditu, errazagoa izan dadin erresonantzia emozional handiko narratiba inklusiboak sortzea eta klimari loturiko konponbide eraldatzaileen aldeko mobilizazioa sustatzea.

HELBURUAK

1. **Ekintza klimatikoa sustatzea**, herritarrak mobilizatzeko eta ingurumen-arloko erronkei aurre egiteko estrategiak emanez.
2. **Ingurumenari loturiko komunikazioa eraginkor egitea**, formatu, tresna, euskarri eta kanal berritzaileak aztertuz.
3. Ingurumen-arloko hezkuntza-eredu bat garatzea, **ikuspegi emozionala** barne hartuko duena, eko-dependentsia eta interdependentsia erdigunean jarritz.
4. **Ahalduntze klimatikoa eta parte-hartzea** sustatzea, ekoantsietateari aurre egiteko ikuspegi ludiko, kultural eta komunitarioen bidez.
5. **Narratiba berriak eraikitzea**, trantsizioa bidezkoa izan dadin bultzatuko duten diskurtso alternatibo eta jasangarriak sortuz, erruduntasunaz diharduten kontakizunak atzean utzita.

HARTZAILEAK

- Ingurumenarekin, komunikazioarekin eta hezkuntzarekin loturiko diziplinetako ikasleak.
- Hezkuntza-arloko profesionalak eta irakasleak.
- Kazetariak eta komunikabideetako profesionalak.
- Jasangarritasunean eta komunikazio klimatikoan interesa duten bestelako profesionalak.
- Oro har, krisi klimatikoan eta ingurumen-hezkuntzan interesa duen publikoa.

PROGRAMA

09:00 - 09:30 Erregistroa eta ongietorria

- Bertaratuen akreditazioa eta kafea

09:30 – 9:45 Jardunaldiaren aurkezpena.

- Leire Zarate, BBK-ko Ingurumen eta jasangarritasun arloko arduraduna
- Arantza Acha, UN Etxearen zuzendaria

9:45 - 10:30 Hasiera-hitzaldia: "Garaiz gabiltza: krisialdi klimatikoa geldiarazteko gakoak"

- **Hizlaria:** Odile Rodríguez de la Fuente. Ingurumen-dibulgatzailea eta Félix Rodríguez de la Fuente ondarearen zaindaria.

Oraindik baliagarriak diren konponbide klimatikoen eta haiek aktibatzeke moduen berrikusketa inspiratzailea.

10:30 – 11:30 Tailer praktikoa: "Ekoantsietatea eta aktibismoa: emozioen zeregina trantsizio ekosozialean"

- **Bideratzailea:** Conchi Piñero. Eraldaketa ekosozialerako bideratzailea, ikertzailea eta prestatzailea.

Ekoantsietatea lantzeko eta hura ekintzarako motor bihurtzeko tresnak. Klima-aldaketarekin eta horrek ongizate pertsonalean eta kolektiboan duen eraginarekin lotutako emozioen azterketa.

11:30 - 12:00- Kafea hartzeko etenaldia

12:00 - 13:00 Eztabaida-panela: "Komunikazio klimatikoa: beldurretik ekintzara"

Nola komunikatu daitekeen klima-aldaketa, beldurrak inor ito edo geldiarazi gabe, eta nola bultzatu daitekeen herritarren ekintza, emozio positiboetatik abiatuta.

- **Moderatzailea:** Euskal Kazetarien Elkarte

Hizlariak:

- Neli Zaitegi, pedagogian eta hezkuntzan aditua.
- Alex Fernández Muerza, ingurumen-kazetaria eta UPV/EHUko irakaslea.

13:00 - 14:00 Tokiko esperientziak: "Ekintza komunitarioa eta partaidetza klimatikoa Euskadin"

Hurbileko zenbait esperientzia eraldatzailearen aurkezpen laburrak

- **Moderatzailea:** UN Etxea
 - UIHP projektua
 - Mater
 - Teamit
 - Teach for All
 - UNRWA

14.00 AMAIERA ETA LUNCHA

14:30 - 15:30 Jarduera ludikoa: Escape room klimatikoa (aukerakoa, parte-hartzaile kopuru mugatua)

- Lankidetzan egiteko jarduera bat, jolasaren bidez ikasteko zein diren klima-aldaketaren erronkak eta konponbide komunitarioak.

HIZKUNTZA

Aurkezpenak gaztelaniaz egingo dira, bestelakorik adierazi ezean. Hizlariak eta entzuleak nahi duten hizkuntzan komunikatzeko eskubidea bermatuko da.

IZENA EMATEKO ORRIA

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSe7zvt89Vq2GNPj9wVsOdyuLbC8KZffDJqG_t4EHEwXvy7B_A/view_form

LAGUNTZAILEAK:

